

PRENTSA OHARRA

Teknikerrek Bureau Veritasekin duen hitzarmena berri du Eibarko Oil Condition Monitoring bere laborategi nagusiarekin jarraitzeko

- *Frantziako multinazionalak berri du 2018az geroztik, hau da, zentro teknologikoko olio industrialen analisi-laborategia erosi zuenetik Teknikerrekin duen lankidetzaren hitzarmena*

[Eibar, 2022ko urriak 13] – Laborategiko saiakuntza-, ikuskapen- eta ziurtapen-zerbitzuetan munduko liderra den [Bureau Veritas](#) multinazional frantsesak, Eibarren (Gipuzkoa) izaten jarraituko du OCMren (Oil Condition Monitoring) laborategi nagusia, [Tekniker](#) zentro teknologikoarekin 2018az geroztik, hau da, Lubrication Management-Tekniker olio industrialen laborategia erosi zuenetik zuen lankidetzaren hitzarmena berri ondoren.

Denbora-tarte horretan, industria-olioen azterketari eskainitako gune hori, Europa osoan ongien hornitutako laborategien artean dagoena, lurraldeko aktibo ekonomiko garrantzitsu bihurtu da. Urtean 4,5 milioi euro inguruko diru-sarrerak eta 35 lanpostu ditu.

Teknikerrekiko ituna berritzea Eibarko zentroko instalazioetan gauzatu da Bureau Veritaseko Adolfo Málaga-ren eta Luis Uriarte Teknikerreko Zuzendari Nagusiaren presentziarekin.

“Europako industria-eragile nagusietako batekin lotura hori berritzea albiste garrantzitsua da bai Teknikerrentzat, bai Eibarko eta Euskadiko ekosistema teknologikoarentzat, ingurunearen posizionamendua eta lehiakortasuna indartzen dituelako nazioartean”, azpimarratu du Luis Uriarte zentro teknologikoko zuzendari nagusiak.

Lankidetzaren horren esparruan, Bureau Veritasen OCM laborategi nagusiak honako zerbitzu hauek eman ditu: olio lubrifikatzaileak analizatzea, lubrifikazioaren kudeaketa globalerako aholkularitza, hutsegiteen arrazoen diagnostikoa eta hainbat sektoretako enpresei lubrifikazio industrialaren kudeaketan espezializatutako prestakuntza.

Teknikerren eta Bureau Veritasen arteko lankidetzari esker, Eibarren geratu dira erabakiak hartzeko zentroa, lanpostuak, ekipamendu teknologikoa eta nazioartekotzeko bokazio argia duen negozioa.

"Olioaren eta ekipoaren egoera ezagutzea gero eta garrantzitsuagoa da industria-inguruneetan, hain zuzen ere lubrifikazio oker baten ondorioz gerta daitezkeen akatsak modu proaktiboan prebenitzeko, eta erabiltzen ari den lubrifikatzailaren analisiaren bitartez ekipoen egoera diagnostikatzeko. Teknikerrek arlo horretan duen *jakintzari* esker, kalitatezko zerbitzuak eskaini ahal izan ditugu eta soluzio berrietan aurrera egin ahal izan dugu", gaineratu du Adolfo Malaga Bureau Veritaseko OCM-ko zuzendariak.

Bureau Veritas-i buruz

Bureau Veritas laborategiko entsegu-, ikuskapen- eta ziurtapen-zerbitzuetako munduko erakunderik garrantzitsuenetako bat da. 1828an sortu zen, eta taldeak 74.000 enplegatu ditu, mundu osoko 1.400 bulego eta laborategitan banatuta.

Bureau Veritasek bere bezeroei laguntzen die betetze-maila hobetu dezaten, haien aktiboek, produktuek, azpiegiturak eta prozesuek kalitate-arloko, osasun- eta segurtasun-arloko, ingurumen-babesaren arloko eta gizarte-erantzukizunaren arloko estandarrak eta araudiak betetzen dituztela bermatzeko zerbitzuak eta soluzio berritzaileak eskainiz.

Teknikerri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago izateko:

GUK ► Unai Macias

unai@guk.eus | Tel. 690 212 067